



PRENTSA-OHARRA

10 EMAKUMEAK

Julia Bea Soto: Alderdi Komunistako kidea

Sesman jaio zen, 1912ko urtarrilaren 28an, eta 1989ko urriaren 13an hil zen, Burlatan. 1935eko otsailean, Iruñean bizi zela, Alderdi Komunistarekin bat egin zuen eta Bulegoetako Langileen Batasunaren Sindikatuko kide egin zen. Anaiak hil eta behartuta errekrutatu zizkieten, eta gerran idazkari eta daktilografo izan zen Dolores Ibarruriren bulegoan, Madrilen.

Brigadista alemaniar batekin ezkondu zen eta, alde egiteko aukera izan bazuen ere, Alacanteko portuan geratu zen, haurdun. Han atxilotu zuten. Hainbat aldiz espetxeratu izan ondoren, 30 urteko zigorra eskatu zuten berarentzat, eta 15 urteko zigorra ezarri zioten. Azkenean, zortzi urte bete zituen Ventas, Amorebieta eta Segoviako espetxeetan.

Kartzelatik irten zenetik, Beak bere jarduera politikoari eutsi zion eta, azkenean, Frantziara igaro zen. Han, alderdi politiko antifrankista guztiak ordezkatuta zeuden espainiarren erakunde bat eratu zuen. Bizitza osoan zehar herrialde horretan bizitzen jarraitu zuen, eta 1989ko urriaren 13an hil zen, Burlatan, arreba Mariari egindako bisita batean.

Dora Serrano Serrano: Iruñeko zelula komunistako kidea

1916ko abenduan Toledon jaioa eta 2013an Iruñean hila, Dora Serrano Iruñean bizi izan zen 1940az geroztik, 1939an Ventaseko kartzelatik irten ondoren. Iruñetik aita eta anaia espetxez alda zitzaten lortzen saiatu zen, Madrilen atxilotuta baitzeuden haiek ere. Une hartan, Iruñeko zelula komunistan sartu zen, Nafarroan Espainiako Alderdi Komunita berreraikitze ahaleginik handienez, eta alderdia ere harekin batera “erori” zen 1943an. Zelulako gainerako kideak bezala atxilotu, epaitu eta espetxeratu egin zuten. Madrilgo Puerta del Soleko Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusian inkomunikatuta egon ondoren, Masoneria eta Komunismoaren Errepresiorako Auzitegi Bereziak auzipetu zuen, eta Gerra Kontseilua egin zioten Alcala de Henaresen.

Serrano 1947ra arte egon zen preso hainbat espetxetan, eta borroka politikoarekin jarraitu zuen, nahiz eta zigorraren zatirik handiena Amorebietako emakumeen kartzelan bete zuen. Franco hil eta demokraziarako trantsizioa hasi ondoren, Serrano Alderdi Komunistara batu zen berriro, eta 1977an, alderdia legeztatu ondoren, berriro ekin zion militantzia aktibo eta publikoari.

Aurora Gómez Urrutia: Iruñeko lehen ezkontza zibila

Aurora ideologiaz ezkerrekoa zen familia batean jaio zen, aita maisua eta Izquierda Republicanako militantea baitzen. Bera eta bere anaiak modu aktiboan ibili ziren garai hartan Nafarroan zeuden gazte-sozialista eta -komunisten taldeetan. Giro horretan ezagutu zuen Jesus Monzón Repáraz Nafarroako buruzagi komunita nagusia, eta 1936ko otsailean ezkondu zen harekin. Hura Iruñeko lehen ezkontza zibila izan zen. 1936ko uztailean atxilotu zuten eta familia aberats bateko beste neska baten ordezkari zuten. Gerra amaitu zenean Frantzia zen.



Monzónnek, emaztearen iritziaren aurka, Sergio semea Paristik SESBera bidaltzea erabaki zuen gerrako hurrekin. Bidaian, eskarlatina agerraldi bat izan zen itsasontzian, eta haurra gaixotu eta hil egin zen. Aurrerago Monzónengandik banandu zen arren, berriro ezkondu ziren, eta haien bizitzak elkarri lotuta egon ziren amaierara arte. Jesús Monzón 1973ko urriaren 24an hil zen, eta Aurora Gómez, esklerosi anizkoitzak jota, 1975eko uztailaren 2an hil zen, Iruñean.

Julia Fernández Zabaleta: maistra abertzalea

Ideologikoki, bere bizitza, bere anaia Valentínena bezala, elkarrekin eta alderdi abertzaleetako militantziak markatu zuen, eta 1920ko hamarkadan euskararen eta emakumeen parte-hartze publiko eta politikoaren aldeko hitzaldi eta propaganda-jardueretan parte hartu zuen. Maria Montessoriren ildoko maistra izan zen Iruñeko Udalaren esparruan, 1936ko uztailaren haren jardura politiko eta pedagogikoa eten zen arte. “Erregimenaren aurkakotzat” jo zuten eta Iruñeko Udalak espediente ireki eta urte batez soldata erdia jasotzera zigortu zuen. 1937ko urtarrilaren 11tik, ordezkatu eta maistra-kargutik kendu zuten.

Frantzia, Gipuzkoan eta Araban maistra lanean aritu eta bizi ondoren, Nafarroara itzuli zen, eta han debekatu egin zioten eskola publikoetan irakasle aritzea. Handik aurrera, irakasle pribatu gisa lan egin zuen bere etxean eta hirian EAJri lotutako familien etxeetan. Iruñeko Udaleko beste langile batzuk bezala, 1957an lanerako birgaitu zuten, eta, 1958an, Vázquez de Mella eskolan hasi zen lanean Fernández, 1961eko otsailaren 16an Iruñean hil zen arte.

M^a Luisa Elío Bernal: erbesteratutako artista

María Luisa Elío, Luis Elío Torres epailearen eta Carmen Bernal López de Lagoren alaba, ekonomikoki eta sozialki ondo kokatutako familia batean jaio zen. Amaren familia Madrilgo burgesia aberatsari lotuta zegoen. Inongo erakundetako militantea ez izan arren, Luis Elío bere etxean atxilotu zuten 1936ko uztailaren 19an; abuztuaren, Carmen Bernal eta bere hiru alabak Elizondon atxilotu zituzten muga Dantxarineatik igarotzera zihoazela. Hiru hilabete geroago askatu zituzten eta, Donostian, Bartzelonan eta Valentzian ibili ziren; gero Bartzelonara itzuli ziren berriro, eta han bizi izan ziren 1938ko urtarrilaren erdialdera arte. Urte horretan muga Indalecio Prietoren autoan igaro zuten, garai hartan Elíoren amak harekin lan egiten baitzuen Gerra Ministerioaren bulegoetan.

Frantzia, babesa eman zieten mojen umezurztegi batean eta bertan lan egin zuten neskek. Gurseko eremuan preso zegoen aitarekin berriro elkartu ondoren, eta alemaniarrek Frantzia okupatzeko zorian zeudela ikusita, familiak Mexikora erbesteratzea erabaki zuen. Elíok Irakaskuntzako Erakunde Librearen eredu pedagogikoaren arabera hezkuntza jaso zuen bertan, eta han egin zuen topo lehen aldiz bere belaunaldi eta erbesteko ikaskideekin. 1959ko Espainiako Mugimenduaren kultura-arloko kide aktiboa izan zen. 2007ko martxoaren 14an, Espainiak Mexikon duen enbaxadaren egoitzan, Isabel Katolikoaren Domina ezarri zitzaion, eta bi urte geroago, 2009ko uztailaren 17an, Coyoacánen (Mexiko) hil zen.

Josefina Guerendiain Caro: Sorospen Gorriko kidea

1936ko uztailaren 25ean, 17 urterekin atxilotua, 14 urte zituenetik Iruñeko Herriko Etxean ibiltzen hasi zen bere aitari –lanbidez hargina zen– laguntzen. Atxilotu baino bi urte lehenago ‘Sorospen



Gorrian' borrokatzen hasi zen San Kristobal gotorlekuan espetxeratuta zeuden Euskal Herriko, Asturiaseko eta Santanderreko preso politikoen alde.

UGTri lotuta, 8 hilabete eman zituen presondegi probintzian atxilotuta. Espetxetik irten zenean San Juan de Dios erietxean lanean hasi zen eta, gero, Gerrako Batzorde Karlistak sortutako Alfonso Carlos ospitalean. Bertan Erriberriko gaixo bat ezagutu zuen, Vicente Lacarra Armendáriz, eta 1938an, 19 urte zituela, harekin ezkondu zen Iruñeko katedralean. Erriberrin, Villabonan (Gipuzkoa) eta Iruñean bizi izan zen, eta hainbat ostalaritza-lokalen arduraduna izan zen. Guerendiain Iruñean hil zen 2011ko ekainaren 4an.

Nemesia Baztán Turrau: gerraostean aurrera egitea

Zangozan jaio zen eta José Plano Urrutiarekin ezkondu zen. Senar-emazteak Iruñera emigratu zuten hiru seme-alabekin, 20ko hamarkadaren amaieran edo 30koaren hasieran seguruenik. Arrotxapean finkatu ziren.

1936ko irailaren hasieran bizilagun batek Nemesia salatu zuen "gorria" izatea leporatuta eta atxilotu eta kaskamotz utzi zuten. Gainera, hemezortzi egunez mezara joateko penitentzia ezarri zioten. 36ko irailean bere senarra atxilotu ondoren eta bidean alaba bat zetorrela, Baztánen bizitzaren istorioak emakume askorendako eta haien familiendako errepresio garaiak islatzen ditu, hala eta guztiz ere aurrera egin behar izan baitzuten eta bizitzen jarraitu behar izan baitzuten. Gainera, bizirauteko modu bat zen edo ihesbiderako sareren batean parte hartzen zuen ez badakigu ere, sarritan aritu zen mugalari: bere etxean jendea ezkutatzeko zuen eta Frantziara igarotzen laguntzen zien.

Modu solidarioan, medikua sasoiz iristen ez zenean, emagin bezala lagundu zuen auzokideen erditzeetan, baita emakumeen seme-alabak elikatzen ere.

Ramona Zapatero Zapatel

Ramona, Ramón bere senarra bezala, II. Errepublikan zehar elkartasun-lanetan aritu zen. Gotorlekura arropak, elikagaiak eta botikak eramatera eta 1934ko urrian Asturiasen egindako mobilizazioen ondoren San Cristobalen atxilotutako presoak bisitatzera igotzen zen emakumeetako bat bezala gogoratua da. Uztailaren 18ko arratsaldean, Ramón etxetik desagertu zen eta 1936ko abuztuaren 24an bere heriotza berretsi zuten.

Egun batzuk lehenago, Ramona eta José Ramón, orduan 16 urte zituen bere seme nagusia, atxilotu eta espetxeratu zituzten. Askatu zutenean Ramona eta bere bost seme-alabak Frantzian, Bartzelonan eta Valentzian egon ziren. Hiru txikiek 6 eta 12 urte bitarte zituzten. Ramona eta bere seme-alabak hainbatetan saiatu ziren Amerikara ihes egiten baina ez zuten lortu espedizio batean ere sartzea. Iruñera itzuli zenean bere inprimategiak beste jabe bat zuen eta bere senarrari 250.000 pezetako isuna jarri zioten "matxinadari laguntzeagatik". Berak ordaindu behar izan zuen isun hura. Azkenik, lotura ekonomiko guztietatik aske, eta bera eta bere seme-alabek negozioa zuzentzen saiatu ondoren, Ramonak inprimategia eskualdatu eta Argentinara erbesteratzea erabaki zuen. Buenos Airesen bizitzen egon zen, eta 1954tik aurrera Caracasen (Venezuela).



Matilde Huici Navaz: Espainiako lehenengo emakume abokatueta bat

XX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera, jaso zuten prestakuntzari esker –horietako asko unibertsitate mailakoak– emakumeendako eskubide sozial, politiko eta juridikoak eta hezkuntza-eskubideak eskatzen eta aldarrikatzen hasi ziren emakumeei “moderna” deitzen zitzairen. Huici Lehen Hezkuntzako ikuskari-lanpostuan aritu zen 20ko hamarkadatik, eta hizkuntza batzuk menderatzen zituen, frantsesa eta ingelesa kasu. Horri esker itzultzaile eta atzerriarrendako gaztelaniako irakasle gisa aritu zen.

1923tik 1934ra bitarte AEBn, Ingalaterran, Alemanian eta SESBen egon zen haur delitugileei lotutako instituzioak eta haurren politikak aztertzeko. Aldi berean, 1926an Zuzenbideko titulua jaso zuen eta Espainiako lehenengo emakume abokatueta bat bihurtu zen. Madrilgo Adingabeen Auzitegiko kide izan zen, eta 1928an Juventud Universitaria Femenina española (JUF) taldearen sortzaileeta bat. Bertan, Clara Campoamorrekin batera unibertsitatean zeuden emakumeendako aholkularitza juridiko bat zuzendu zuen eta Agrupación Liberal Socialista taldearen sorreran parte hartu zuen.

1931ko apirilean II. Errepublika aldarrikatu zenean, Huicik gobernu berriarekin konpromisoa hartu zuen eta Justizia Ministerioko Aholkularitza Batzorde Juridikoko eta Errepublikaren Konstituzio berria idazteko Zuzenbide Penaleko Azpibatzaordeko kide izan zen, Gerraren eta Faxismoaren aurkako Emakumeen Komite Nazionaleko kide, Espainiako Emakume Antifaxisten elkartekoa (AMA) eta herrialdean zeuden adingabeen tutoretzako auzitegi guztiak ikuskatu zituen.

Gerran Valentziara eta Bartzelonara joan zen gobernuaren atzetik, eta eremu errepublikarreko haurrak irteteko prestaketa-lanetan parte hartu zuen. Hori dela eta, “heriotzara zigortu” zuten, “berekala eta aurkitzen zuten lekuan bertan” eta ezin izan zen Espainiara itzuli. Frantziara ihes egin zuen, eta 1940ko maiatzean Txilen erbesteratu zen. Bertan ez zuten bere abokatu titulua onartu eta frantseseko itzultzaile lanetan aritu zen Espasa Calpe argitaletxean. 1944an Txileko Unibertsitatean Escuela Educadora de Párvulos eskola abiatu zuen, eta bertako zuzendari izan zen 1962ra arte. Centro Republicano Español zentroko kide izan zen 1965eko apirilaren 13an Santiago de Chile hil zen arte.

M^a Carmen Húder Carlosena

Pedagogia ikasi zuen Iruñean eta gero Irakaskuntzako Erakunde Libreari lotutako Madrilgo Magisteritzako Goi Mailako Ikasketen Eskolan, bai eta New Yorkeko Vassar Collegen ere. 1936ko uztailan, Iruñean bere alabaren lehen jaunartzea ospatzen ari zirela, altxamendu militarrek harrapatu zituen. Anaia bat eta lehengusu bat erail zituzten Valcarderan, eta Javier Yarnoz senarrarekin Frantziara pasa ziren, hanidik Valentziara itzuli eta Errepublikaren zerbitzura lanean jartzeko. Ondoren Bartzelonara joan zen gobernuarekin batera, handik Figueresera eta berriz ere Frantziara gerraren amaieran.

1939ko abuztuan, naziak Frantziara berehala sartuko zirela ikusita, bikotea eta alaba Venezuelara erbesteratu ziren. Eusko Jaurlaritzak erbestean pleitatutako Flandre itsasontzian bidaiatu zuten.



María del Carmen 1944an García Lorcaren Mariana Pineda antzezlanaren protagonista izan zen Caracaseko Ávila antzokian, eta AEBetako Enbaxadako langileei gaztelania eskolak ematen aritu zen. Urte askotan zehar, adingabe babesgabeak babesteko elkarte batekin lanean aritu zen. 1987an Húder Caracasen hil zen Venezuelako nazionalitatearekin.